

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5734

EBAZPENA, 2021eko urriaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, 2021. urterako EAEko elkarteek eta fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2021eko martxoaren 22ko Ebazpenaren bidez, 2021. urterako dirulaguntzen deialdia egiten baita, EAEko elkarteek edo fundazioek memoria Historikoa berreskuratzeari buruzko proiektuak egin ditzaten.

Ebazpen horren 12. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea I. eranskinean ageri diren erakundeak atzera egiteko aurkeztutako eskabideak, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– Ez onartzea II. eranskinean ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.– Memoria Historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko laguntzak ematea III. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2021eko urriaren 22a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.



2021eko azaroaren 10a, asteazkena

I. ERANSKINA

ESKATZAILEEN ATZERA EGITEA

Kodea	Izena	Proiektua	Atzera egiteko arrazoia
2	Asociación Defensa Dignidad Humana	En memoria de las víctimas olvidadas de 1979	Eskabide berria aurkeztu zuen dirulaguntza egokian.
24	Ugao Burdin Hesia Elkartea	Acto de reconocimiento a las víctimas de los campos de concentración del norte peninsular.	Elkartek ekitaldia datorren urtera eramatea erabaki du.
26	Asociación Humanístico Cultural	Izkutatuta zegoen historia-La historia oculta	Eskabide berria aurkeztu zuen dirulaguntza egokian.

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoa
11	Fundación Cultural Privada Indalecio Prieto	Indalecio Prieto-Ricardo Bastida. Historia de una amistad	Ez da betetzen martxoaren 22ko ebazpenaren 3. artikulua
17	Bozak Mujeres por el Derechos a la Comunicación	Irungo Alarde Berdinzalearen historiaren paseoa	Ez da betetzen martxoaren 22ko ebazpenaren 1. artikulua Ez da diruz lagundu daitekeen jarduera

2021eko azaroaren 10a, asteazkena

III. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
20	Asociacion de Víctimas del 3 de marzo	Investigación e inventariado de recursos para el espacio memorial	10.000
9	Asociación Moviéndote por la Intregación y Participación Ciudadana	Ruptura Generacional en la Guerra Civil. La Otra memoria	4.860
4	Jesús María Leizaola Fundazioa	Telesforo Monzón Erakusketa	7.351,50
12	Bozak. Mujeres por el Derecho a la Comunicación	Colón pasealekua: Acera de los Reales y Peseta	2.905
6	Intxorta 1937	85 Urte Justizia Eske – Omenaldia	3.530,10
18	Gune Irekiak	Isilduen Ahotsak	8.100
21	Gerediaga	Durangon bonbardaketen ondorioz ehortzitakoen ondorengo bilaketa	6.496,00
13	Sabino Arana Fundazioa	2021 urteko egitaraua	7.500
3	Hamaika Bide Elkartea	1936ko Erbestealdien Mitoak Batzarra	4.440
1	Gukmedia Kultur Elkartea	«Hezurak»	4.818
23	Kepa Ordoki	85.Urte	3.650
22	Oroituz Portugalete	Digitalización para conservación de documentos de MH de Portugalete	2.736
10	Asociación Moviéndote por la Integración y Participación Ciudadana	Asociacionismo mujeres vascas desde la República a la Dictadura: activismo social por la libertad	4.025
19	Pipergorri	Gernikako gerra presoen ospitale militarra zarratu zeneko LXXXI urteurrena	6.800
25	Asociación Republicana Irunesa	Homenajes	1.292
8	Fundación Ramón Rubial	Tiempo de Silencio, Resistencia y Clandestinidad de la Cultura Socialista en Cruces 1937-1977	5.355
14	Juan de los Toyos Fundazioa	Los barcos del exilio, el buque Habana y la vida lejos de Euskadi	4.087
15	Juan de los Toyos Fundazioa	Resistencia socialista durante el Franquismo: oposición y memoria	3.965
5	Harresi Kulturala	Digitalización y estudio archivo Balmaseda	4.770
7	ONG Pausu Media	Bidasotarren Memoriarekin Zorrak Kitatzen	4.095
16	ONG Pausu Media	Bidasoako sindikalismoa frankismoaren zehar	2.825